

Mondragon Unibertsitateak ISX teknologien aldeko apustua egin du Datuak Prozesatzeko Zentrorako

2009/03/18

Mondragon Unibertsitateak teknologia berritzaile batean oinarritutako Datuak Prozesatzeko Zentro (DPZ) berri bat jarri du. Honek segurtasun fisiko eta datuen segurtasun handiagoa ematen dio, horrela bertan dauden zerbitzu eta sistemen segurtasuna eta erabilgarritasuna bermatuz. Era berean, energia kontsumoa optimizatuko du eta atmosferara isuritako karbonoa gutxitu.

Inycomek Mondragon Unibertsitaterako garatu duen konponbidea, APCren InfraStruXure teknologian oinarritzen da. Teknologia honek ITak departamentukoek instalazio guztiaren monitorizazioa eta zerbitzarien kudeaketa eraginkorra egitea ahalbidetuko du.

Inycomek ezarritako azpiegitura honek Mondragon Unibertsitateko erabiltzaileei lanen jarraipena eta zerbitzua ziurtatzen die. Horretarako, energia elektrikoaren horniduran eta hozte-siteman sistema erredundanteak instalatu dira, etengabeko hornidura bermatzeko eta DPZan dauden aire girotuko makinei zerbitzua emateko.

Instalazio hau oso eraginkorra da energiaren ikuspuntutik, kosteak eta energiaren ekoizpenari lotutako CO₂ isurketak gutxitzen direlako. Energia kontsumoaren gutxitzea DPZaren diseinu egokiago bat (APCk patentatutako aire beroko korridoaren teknika) eginez lortu da. Baita azpiegituraren kudeaketa aktibo bat eginez, kontrolerako software aurreratu bat erabili da, zeinak hozketa-sistema etengabe doitzen duen.

Azkenik, Datuak Prozesatzeko Zentro hoau konponbide modular gisa sortu da eta honek malgutasuna, eskalagarritasuna eta egokigarritasuna ematen dio. Momentuko beharrei erantzuteko beharrezko osagaiak bakarrik instalatu dira, etorkizuneko azpiegiturretan hasieratik inbertitzea ekidin da baina, honek ez du ondorengo hazkunde bat baldintzatuko.

Informazio gehiago: Irene Jaén. Komunikazio zuzendaria. Tel. 664 309 375

